



IRAGARKIA

Iragarki honen bitartez jakinarazten da Udalbatzak 2023ko maiatzaren 22an egindako bileran “Goruetan” ikerketa beka arautzen duen deialdiaren oinarriak onartu zituela eta honen bidez argitaratzen da:

“GORUETAN” IKERKETA BEKA ARAUTZEN DUEN DEIALDIAREN OINARRIAK

SARRERA

Emakumeen ikuspegi eta ekarpenei balioa ematen ez dien kontakizuna izan da gure herriaren historia eraikitzeke ardatza. Gizonak izan dira objektu eta subjektu bakarrak, eta horrek bazterrean geratzen diren errealitateak aintzat hartu ez dituen kontakizun bat erakutsi digu. Emakumeen errelatoak ez dira kontuan hartu eta ondorioz emakumeak ez dira ikustarazi; gabezia nabarmenak daude eremu guztietan.

Gure inguruko eta gure herriko historia berridazteko saiakeran aparteko garrantzia izan dute ikertzaile eta historialari feministek egindako ekarpenak, Euskal Herriaren azterketa feministaren bidez, baita azken urteetan hainbat herritatik sustatutako dirulaguntza eta ikerketa bekei eta bertatik egindako ikerketei esker erakutsitako errealitateak ere.

Aipatutakoan eragiteko Bergarako Udalak, eta Laboratorium museoak (gizarte museoa den heinean), beka hau baliatu nahi dute emakumeen ekarpena zer nolakoa izan den jaso eta bide batez emakumeei zor zaien aitortza egiteko.

Bestalde, Udalak onartutako III Berdintasun Planak emakumeen ahalduntze sozial eta politikoan laguntzea deituriko lan ildoan “esparru desberdinetan Bergarako emakumeen ekarpena ikusgai egon dadin sustatzea” deitutako ekintzari ere erantzun nahi dio ikerketa beka hau martxan jarrita.

XEDEA

1-XEDEA

Emakumeek historian zehar Euskal gizarteari egindako ekarpenak ikertzea eta ikertutakoaren emaitza ezagutzera ematea da lanaren xedea.

Emakumeek lan, gizarte, ekonomia, politika, hezkuntza, historia, arte, zaintza, osasun, ikerkuntza, herrigintza, edota kultur arloan egindako ekarpen historikoa izango da ikerketa esparrua.

2- IKERKETA LANAREN JABETZA

Begarako Udalak beretzat gordetzen du ikerketa osoki edo/eta partzialki argitaratu, erreproduzitu eta plazaratzeko eskubidea (paperean, digitalki...) bost urtez. Epe hori igarota egileak bere lana argitaratzeko eskubidea izango du beti ere izan zuen bekaren aipamena eginez.



Egilearenak izango dira bekarekin egindako lanaren gainean 1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegilearen bitartez onartutako Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateratuak autoreei aitortutako eskubideak, puntu honetako aurreko pasartean udalaren alde aitortutakoak izan ezik.

3-ARAUDI APLIKAGARRIA

Oinarri hauetan xedatua ez dagoenean honako araudia aplikatuko da:

- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erreglamendua onartzen duena
- Bergarako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra
- Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateratua, 1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegilearen bitartez onartutakoa

4-ESKATZAILEAK

Beka norbanakoak edo horretarako osatutako lantaldeek eskatu dezakete. Talde batek eskatuz gero, ordezkari bat izendatu beharko dute.

Eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte:

-Unibertsitate gradu ikasketetako titulazioa izatea eta ikasketen ezagutza eremuak zerikusia izan beharko du ikertu nahi duen gaiaren xedearekin. Taldeen kasuan gutxienez taldekideen %60k baldintza hori bete beharko du.

-Egunean egotea betebeharr fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoan.

-Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebeharr fiskaletan, zergatan eta zergaz aparte tasetan eta prezio publikoen ordainketan egunean egotea.

-Euskararen C1 agiria izatea eskatzailea bakarra bada; eta taldeen kasuan kideen %60ak.

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13 artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera, dirulaguntza jaso ezin izateko kausetako batean ez egotea eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2013 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan eta indarrean dagoen gainerako araudian onuradun izaera lortzeko adierazitako debekuetakoren batean ez egotea

-Proiektu proposamena, azken produktua eta honen laburpen bat euskaraz aurkeztu beharko ditu, baita azken produktuaren laburpen bat gazteleraz ere.

-Udalarekin eta herritarrekin izango den harremana euskaraz izatea bermatu beharko da.

-*Eskatzailea/k ezin izango dira beste dirulaguntza baten onuradun izan ikerketa bera aurrera eramateko



5-IKERKETAREN IRAUPENA

Ikerketaren iraupena gehienez 18 hilabetekoa izango da, bekaren irabazle izan dela jakinarazi zaion egunetik hasita. 18 hilabeteko epe horretan ikerketa lana egin, ikerketa Udalean entregatu eta horren hedapena/ aurkezpena egin beharko ditu.

ESKAERAK

6-ONARTUKO EZ DIREN PROIEKTUAK

Aurkeztutako proiektuek originalak izan beharko dute, aurrez publikatu gabeak. Ez da onartutako ez beka honen eta ezta antzeko xedea duen beste edozein bekaren aurreko deialdiren batean, nahiz zati batean, nahiz osoki, saritua izan den lanik, ezta itzulpenik, ezta egokitza pen edo aldaketarik ere.

7-ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Eskabideak eta gainerako agiriak, deialdia GAOn argitaratu eta gehienez 30 laneguneko epean aurkeztu beharko dira, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean, honako modu hauetakoren bat erabilita:

- Bergarako Udaleko Erregistro Nagusian (B@Z arreta zerbitzua) aurkeztuko dira, edo 39/2015 Legeak 16.4. artikuluan aurreikusitako bitartekoetatik edozein erabiliz.
- Elektronikoki. Elektronikoki eskabideak aurkezteko, Udalaren egoitza elektronikora jo beharko da, haren web-orriaren bidez

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ikusiz gero, hamar eguneko epean konpondu edo beharrezko agiriak ekar ditzala eskatuko zaio. Hala egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, betiere ebazpena emanda.

8-AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaera egiteko honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- 1.-Izena emateko eskaera-orria Udalak emandako ereduari jarraituz. (*Inprimakia*)
- 2-Eskatzailearen eta/edo ordezkariaren Nortasun Agiriaren kopia. Taldeen kasuan guztion Nortasun Agiriaren kopia.
- 3-Taldeen kasuan ordezkariak agiria sinatu beharko dute taldekide guztiek (*Inprimakia*) Dokumentu hori talde kide guztiek eta ordezkariak sinatuta egon beharko da.
- 4- Kontu korrontearen zenbakia eta titularitatea egiaztatuko duen agiria.
- 5- Udalak Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasunerako Nodoaren (Nisae) bidez, eskatzaileak eta taldeko kide guztiek (hala dagokionean) zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituztela kontsultatu eta egiaztatuko du, salbu eta

interesdunak horren aurka egiten badu era arrazoituan. Aurka egingo balu Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituztela egiazta tzen dituen agiriak aurkeztu beharko dira. Udalarekiko ordainketak egunean edukitzea ofizioz egiaztatuko dira.

6- Egileari/ ikertzaileari edo ikertzaile bakoitzari dagokion dokumentazioa

- Curriculum vitae, egindako ikasketa eta ikerketak zehaztuta
- Titulazioen edo merezimenduen egiaztagirak
- Lanen bat argitaratu badu edo badute: Argitaratutako lanaren erreferentzia
- Ikertzaile-taldearen kasuan:
 - Ikertzailearen edo taldearen aurreko esperientzia
 - Elkarlanean aritzeko konpromisoa; egindako ikerketak, argitaratutako lanak

7-Beka eskatzen den eta ikertu nahi denaren inguruko proiektu proposamen edo **memoria teknikoa**. Memoria teknikoa 15 orrialdekoa gehienez izango da. Horri horietatik kanpo daude aurreko puntuan zehaztutako CV. Tituluak...

Proposamenak/Memoria teknikoak gutxienez informazio hau jaso behar du:

A-Ikerketaren edukiari dagokionez:

- Izenburua
- Lanaren ikerketa esparrua
- Aukeratutako gaiaren justifikazioa
- Ikerketaren helburuak
- Lan metodologia
- Informazioa eskuratzeko iturriak
- Aurreikusitako emaitzak
- Lana garatzeko kronograma

B-Ikerketaren hedapenari (plazaratzeari) dagokionez

- Hedapena (azalpena) nola gauzatuko lukeen, erabiliko lituzken euskarri edota baliabideak eta horietako bakoitza garatzeko denboren aurreikuspena (kronograma)

Eskariak aurkezteak, oinarri hauetan jasotako baldintzak onartzen direla esan nahi du.

BEKA EMATEA

9-DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntza onartzen duenak 12.000 euro jasoko ditu; 6.000 euro 2023ko aurrekontuaren kontura eta beste 6.000 euro 2024ko aurrekontuaren kontura. Gastua 1.3500.481.230.20.01 2023 zenbakiko aurrekontu aplikazioaren kontu izango da.

Ekoizpen kostu oro ikertzailearen kargu izango da.

Zenbateko horretan, a) ikerketa egitea, b) ikerketaren hedapenerako proposamen idatzia aurkeztea, eta c) ikerketa amaitu ostean aztertutakoa herrian plazaratzeko bi aurkezpen hitzaldi aurrez aurre egitea barne biltzen dira.

10-BEKA/DIRULAGUNTZA JASOTZEKO MODUA

Diruz laguntzen diren jarduerak egin ahala ordainduko da laguntza:

- Kopuru osoaren %25, puntu gehien duen proposamena izanik bekaren onuraduna dela esanez jakinarazpena jasotzen denean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren %25, lehenengo sei hilabeteak igaro eta ordura arte egindako lanari buruz txostena aurkeztu eta udalak oniritzia emandakoan.
- Kopuru osoaren %25 hasierako jakinarazpena jaso, 12 hilabete igaro eta ikerketa txostena Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman duenean
- %25 hedapen proposamena aurkeztu eta herrian azken bi aurkezpenak egin ostean. (gehienez 18 hilabetera)

****Ikerketa egin bitarte sortutako gastu guztiak ikerketa bekaren onuradunaren kontura izango dira.

Ordainketak egin baino lehen Bergarako Udalak Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasunerako Nodoaren (Nisae) bidez, eskatzaileak eta taldeko kide guztiek (hala dagokionean) zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituztela kontsultatu eta egiaztatuko du, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu era arrazoituan. Aurka egingo balu Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituztela egiaztatzen dituen agiriak aurkeztu beharko dira. Udalarekiko ordainketak egunean edukitzea berriz ofizioz egiaztatuko da.

11-ESLEIPEN PROZEDURA

Dirulaguntza mota:

Norgehiagoka bidez ebatziko da deialdi hau, plan estrategikoan jasota dagoen moduan, Bergarako Udalak duen ordenantza orokorrarekin bat etorriz.

Epaimahaia:

Proposamenak (memoria teknikoa) baloratuko ditu epaimahaiak, eta era berean bekaren jarraipen batzordeko kide izango dira epealdia iraungi bitarte. Epaimahaia modu honetara osatuko da.

1. Arduradun politikoa
2. Idazkaritzako ordezkaria
3. Berdintasun teknikaria
4. Museoko ordezkaria
5. Udal artxiboko ordezkaria
6. UNED Bergarak izendatutako irakaslea
7. Herriko mugimendu/talde feministako ordezkaria

Epaimahaiak pertsona eskatzaile edo talde eskatzaileko kideen elementu hauek kontuan hartuko ditu: ezagutza, prestakuntza, ikerkuntzan ordu arte izandako esperientzia, ikerketaren helburuak argi azaltzea, bekaz lagunduko den ikerketari eskainiko zaion tarte, ikerlana egiteko proposamenean azaldutako interesa eta ikuspegia, besteak beste.



Balorazio irizpideak:

Aurkeztutako proposamenak modu honetara baloratuko dira:

Epaimahaikide bakoitzaren puntuak gehitu eta batuz bestekoaren emaitza izango da eskatzaile bakoitzaren puntuaketa.

Esleipen prozeduratik kanpo geratuko dira gutxieneko puntuazioa lortu ez dutenak, 55 punturen azpitik daudenak, hain zuzen.

Puntu gehien duenari esleituko zaio beka eta horrek hartuko ez balu, hurrengoari proposatuko zaio. Onuradunak 10 eguneko epean espreski idatziz uko egiten ez badio, ontzat ematen duela ulertuko da.

Proposamenaren egokitasuna (gehienez 100)

-Ikerketa proiektuari dagokionez. (40 puntu).

- Ikerketa proiektuaren originaltasuna, interesa,
- Ikertuko den gaia
- Zuzentasuna eta balio zientifikoa
- Ikerketa lana Bergarako testuinguruan kokatzea eta herriaren ezagutza proiektuan kontuan hartzea
- Ikerketa proiektuan erabiliko den metodologiaren ingurukoa
- Erabiliko diren iturriak

-Begarako herriarentzat duen interesa eta Begarako emakumeek egindako ekarpenarekin duen zuzeneko lotura (20 puntu)

-Hedapen (plazaratze) proposamena (20 puntu)

- Hedapen proiektuaren interesa eta originaltasuna
- Argitasuna eta egokitasuna
- Aniztasuna eta irisgarritasuna bere osotasunean nola hartu diren kontuan

-Eskatzailearen edo eskatzaileen kurrikuluma (20 puntu)

- Ibilbide akademikoa (ikerketari lotutako gaietan formakuntza, publikazioak, formakuntza)
- Ibilbide profesionala (Ikerketan izandako esperientzia...)
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean, ikerketa feministan ibilbidea, esperientzia, ezagutza

***Proposamen batek ere ez badu behar adinako interes edo kalitaterik, beka ez ematea erabaki dezake Udalak-.

Ebazpen proposamena:

Epaimahaiaren balorazio proposamena kontuan hartu eta dagokion organo eskudunari helaraziko zaio, eta horrek ebazpena emango du.

Proposamen horretan aukeratutako pertsona edo taldea nor den adieraziko da eta ordezkoen zerrenda; baztertutakoen zerrenda, eta behar adina puntu lortu ez duenik egonez gero ere zehaztuko da.



Beka emateak ez du berekin ekartzen inolako lan lotura bat esleipendunarekin; ondorioz, ez du betekizunik sortzen Gizarte Segurantzarekiko.

Ebazpena pertsona edo talde onuradunari jakinaraziko zaio. Ebazpenaren berri emango da, 39/2015 Legeko 45.artikuluaren eraginetarako, www.bergara.eus webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.

Deialdia ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Behin epe hori igarota ebazpena ez bazaie jakinarazi eskatzaileei behar bezala, beka eskaera ezetsizat jo ahal izango da, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 25.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dirulaguntzari dagokion jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 10 egun balioduneko epean uko egin ez badu onuradunak izendapena onartutzat emango da.

KONTROLA

12-AURKEZTU BEHARREKO LANAREN EMAITZA: IKERKETA

Jakinarazpena jaso eta sei hilabeteko epean ikerketaren egoeraren inguruko txostena aurkeztu beharko du dirulaguntzaren onuradunak Bergarako Udaleko erregistroan. Aurkeztutakoa bilera batean aurkeztu beharko du hala eskatuz gero.

Hasierako erreferentzia data kontuan hartu eta urte beteko epean (12 hilabete) idatzizko ikerketa txostena aurkeztu beharko du Udalean aztertutakoaren emaitzak bertan jasoz. Hori aurkeztu eta gehienez hiru hilabeteren bueltan hedapen (kaleratze) proposamena aurkeztuko du (bideoa, erakusketa, liburua....) baita hori garatzeko beharko litzatekeen aurrekontuaren estimazioa ere.

Azkenik eta gehienez beste hiru hilabeteren bueltan bi aurkezpen egin beharko ditu herrian ikerketaren berri emanez. *(12hilabete+3 hilabete+3 hilabete. Ikerketa txostena entregatu eta gehienez 6 hilabete ditu beste bi kontuak egin eta amaitzeko)*

13-ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

- Oinarri hauetatik eratorritakoak onartzea
- Eskatutako lanak aurrera eramatea eta aurkeztea
- Lanaren kalitate minimoa bermatzea; hau da, lanaren kalitatea bat etortzea dirulaguntzaren helburu eta dotazioarekin.
Epaimahaiak dirulaguntza bertan behera uztea erabaki dezake interesdunari entzunaldia emanda. Hori horrela balitz 14 puntuan jasotakoa kontuan hartuko litzateke..
- Beka emandako helbururako soilik erabiltzea eta, berariaz zehazten den egutegiari jarraikiz, Udalari egindako lanaren eta lortutako emaitzen berri ematea, hark oniritzia eman diezaion.
- Aurreko atalean aipatutakoak egitea eta hala eskatuz gero jarraipen bileretan parte hartzea.

- Aurreikusitako planean egindako aldaketen eta pertsona ikertzaile taldearen osaeran gertatzen denaren berri ematea. Bergarako Udalaren oniritzirik gabe, ezingo dira ikerketaren funtsezko elementuetan aldaketarik egin.
- Behin betiko ikerketa lana, euskaraz entregatzea: horrekin batera txostenaren laburpena (10 orrialdetakoa) bai gazteleraz eta bai euskaraz, Bergarako Udalean aurkeztu beharko ditu. Paperean eta digitalean.
- Lanaren aurkezpenak eskatutako epean aurrera eramatea.
- Egindako lanari buruzko iragarki orok Bergarako Udalak diruz lagundutakoa dela adierazi beharko da.
- Proiektuaren osotasunean genero ikuspegia bermatzea
- Lana originala izatea bermatzea. Obligazio hori ez betetzeagatik izan litezkeen erreklamazio edo liskarren eraginez Udalari etor lekiokkeen diru-zama oro, bekaren hartzaileak hartuko du bere gain.
- Dokumentazio osoan hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu beharko da; irudiak edo materialak emakumeen edozein irudi diskriminatzaile, edo estereotipo sexista saihestuz eta berdintasun irudia, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero rolen aniztasuna eta ez estereotipatua erakutsi beharko dute.

Betebehar hauek guztiak betetzen ez badira, bekaren onuradunek unean unera arte jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte.

14-ITZULKETAK ETA HORRETARAKO PROZEDURA

Ikerlanaren garapenean egin beharrekoak betetzen ez badira ordu arte jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko du onuradunak

Itzulketari, edozein dela ere horretarako arrazoia, Bergarako Udaleko Dirulaguntzen ordenantza orokorrean jasotakoa aplikatuko zaio

15- BERMEAK

Ez da beharrezkotzat jotzen emandako laguntzengatik udalaren aldeko bermerik eskatzea.

16-DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, beka hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

17-OINARRIEN INTERPRETAZIOA

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantza Udalak erabakiko du. Deialdi honetan zehaztutako arauak izango dira interpretazioen oinarri.

18-OINARRIEN AURKAKO ERREKURTSOAK

Oinarri-arau hauek onartzeko akordioaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, berraztertze errekurtoa jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoren aurretik eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hileko epean. Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauek deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkoztat jotzen den beste edozein egintza edo errekurto jarri ezingo denik.

Begara, 2023ko urriaren 17a
Alkateak